

# Eskerrik asko Oiartzun!



**Atez ateko gaikako  
bilketaren gida**



## AURKIBIDEA

arazo bat daukagu	3
badugu konponbidea	4
atez ateko bilketa	5
materia organikoa	6
ontzi arinak	7
papera eta kartoia	9
beira	10
errefusa	11
gainerako materialak	12
atez ateko bilketaren (AAB) funtzionamendua	14
ohiko galderak	18
zer non. Hondakinak egoki sailkatzeko hiztegia	21
planoa	40

Zalantzak argitzeko:

**Atez ateko informazio bulegoa:**

Done Eztebe plaza 11. Sarastiene  
09:00 – 13:30 / 15:30 – 19:00 (astelehenetik ostiralera)

**Doako telefonoa:** 900 49 11 11

**Emaila:** [atezate@oiartzun.org](mailto:atezate@oiartzun.org)

**Webgunea:** [www.oiartzunatezate.org](http://www.oiartzunatezate.org)



# ARAZO BAT DAUKAGU...

## Zabor mordoia zabortegietan

Oiartuarrok zabor pila sortzen dugu, ia hondakin guztiak nahastuta botatzen baititugu. Denok diogu birziklatzen dugula, baina datuen arabera, guztion artean etxean sortzen ditugun hondakinen %29a soilik biltzen dugu gaika. Bi urtean, San Esteban parroko kanpandorrea hiru aldiz beteko genuke zaborrez.

Arazo horren irtenbidea oso erraza da: egin behar dugun gauza bakarria etxera eramaten ditugun materialak ez nahastea eta berezita biltzea da. Egungo sistemak, ordea, ez du hori egoki egiteko aukerarik ematen.

Sortzen dugun zabor gehiena janari hondarrek, hau da, gai organikoek osatzen dute. Zaborraren %42a janaria da. Zabortegietan materia organikoa bestelako materialekin nahastuta egoten da, eta arratoiak nahiz kaiok erakartzeaz gain, usain txar eta isuri kutxakorrak sortzen dira. Horregatik, hondakinak kudeatzeko orduan, oso inportantea da janari hondarrak berezita biltzea; modu horretan, arazoaren zatirik handiena saihesten dugulako. Materia organikoa berezita bilduz gero, janari hondar horiek konpost bihurtzen dira lurra ongarrizteko eta lorezaintzarako.

Denok birziklatzen dugu, baina, denon artean, etxean sortzen ditugun hondakinen %29a soilik birziklatzen dugu.



## Ez dugu legea betetzen

Estatuko hondakinen legeak dionez, jada 2001az geroztik jaso behar da materia organikoa modu selektiboan. Gauzak horrela, zergatik 2008a arte ez da horrelakorik egin? Egin daiteke eta egin egin behar da. Arrazoi horregatik, oiartuarrok egin egingo dugu.

## Bada zerbait okerragorik?

### Bai, erraustegia

Egoera larriagotu egiten da Gipuzkoako Foru Aldundiak arazoa problema handiagoa sortuz konpondu nahi duenean: errauste-plantarekin, alegia. Errauste-plantak kaltegarriak dira gizakion osasunerako gas toxikoak jaurtitzen baitituzte.

Ditugun baliabide naturalak mugatuak izanik, zer zentzu du papera, kartoia, botilak, janari hondarrak... erretzeak? Ez du inolako zentzurik, eta are gutxiago gure osasunari kalte egingo badio.

Ahaleginak egin behar ditugu zaborra ez erretzeko, eta horretarako, hondakinak zabor bihurtzea saihestu behar dugu. Nola egin dezakegu hori? Hondakinak gaika eta berezita bilduz.



# ...BADUGU KONPONBIDEA

Arazo hori konpontzeko denok egin behar dugu zer edo zer, denok garelako arazoaren zati eta irtenbidearen parte.

Oiartzunen, arazoa konpontzen laguntzeko, hondakinak biltzeko sistema aldatzea erabaki dugu. Edukiontzien sistemak goia jo du eta problema konpontzeko irtenbide osoena hondakinen atez ateko bilketa da. Gaur gaurkoz, kontenedore sistemak dakartzan osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta lege-arazoei irtenbidea ematen dien sistema bakarra da.

- Erraustegiak kaltegarriak dira gizakion osasunerako gas toxikoak jaurtitzen baitituzte.




# ATEZ ATEKO BILKETA

## Atez ateko gaikako bilketa

Atez ateko gaikako bilketa (AAB) Kataluniako eta Mallorkako 80 herri baino gehiagotan egiten da, baita Italia iparraldeko, Belgikako, Frantziako... milaka herritan ere. Hortaz, frogatuta dago bideragarria dela.

Sortzen ditugun hondakinak kudeatzeko modurik zentzudunena da, horrela, %80 birziklatzera heltzen baikara, gaur egun %29ra soilik heltzen garelarik.


Sortzen ditugun hondakinak bildu eta kudeatzeko modurik onena dela frogatzen duten milaka arrazoi dago: kalean ez da konatedore edo edukiontzirik egongo, kalitatezko konposta lortzen da... Baina garrantzitsuena da, eta horregatik merezi du sistema hori martxan jartzeak, gure ingurunea eta gure osasuna zaindu egiten ditugula.



## Zer da atez ateko gaikako bilketa?


Helburua sortzen ditugun hondakinak ez nahastea da. Horrela eginez gero, bost hondakin atal bereizten ditugu: materia organikoa, ontzi arinak, papera/kartoia, beira eta errefusa (egun birziklagarriak ez diren hondarrak). Hondakin atal bakoitza asteke egun jakin batean edo batzuetan jasotzen da etxe-atarietan, tabernetan, jatetxeetan, komertzioetan, elkarte gastronomikoetan...

Atez ateko bilketa eginez bide publikotik edukiontzi guztiak kentzen dira, beira jasotzeko erabiltzen diren igluak izan ezik. Herriaren tipologiaren arabera, atez ateko sistema bat edo beste erabiltzen da. Oiarzungo kasurako egokituko duguna sistema ohikoena eta birziklatze-tasa altuena lortzen duena da.


Atez ateko gaikako bilketak hondakinak ez nahastea eskatzen du, gai organikoa ere banatuz. 

## 5 hondakin atal, 5 kolore


Atez ateko gaikako bilketan bost hondakin atal bereizten dira: materia organikoa, ontzi arinak, papera eta kartoia, beira eta errefusa. Hondakin atal bakoitzak bere kolore bereizgarria du:




materia organikoa




ontzi arinak



papera eta kartoia



beira



errefusa

# MATERIA ORGANIKOA

## Zer da materia organikoa?

➊ Materia organikoarekin kalitatezko konposta (landare lurra) lortzen da. Lorezaintzan, nekazaritzan eta arbolazaintzan erabil daiteke.

- Animalia-jatorriko janarien hondarrak, kozinatuak zein gordinak.
- Landare-jatorriko janarien hondarrak, kozinatuak zein gordinak.
- Materia organikoz (janari hondarrez edo landare-olioz, esaterako) zikindutako paperezko oihalak, sukaldeko papera eta paperezko mahai-zapiak, eta mukizapi erabiliak.
- Kafe-hondarrak eta infusio-poltsak.
- Marisko-oskolak, eta fruitu lehorren eta arrautzen azalak.
- Fruituen eta animalien hezurak, baita arrainenak ere.
- Loreak eta landareak.
- Belarra (kantitate txikian, hobe da autokonposta egitea).
- Txotzak, pospoloak, zerrautsa (kantitate txikian), eta kortxo naturalezko tapoiak.
- Tratatu gabeko egurraren errauts hotza (kantitate txikian).

Usain txarrak saihesteko, kubo marroia etxean den artean beti irekita uztea gomendatzen da. Horrela, hezetasunak ihes egiten du eta janariak ez dira usteltzen. Arrainak usain txarrik bota ez dezan, sukaldeko paperean bil daiteke.

## Zer egiten da materia organikoarekin?

Bildutako guztia inausitako adarrekin nahasten da konpostatze-plantan eta, tratamendu egokiaren ondoren, kalitatezko konposta (landare-lurra) lortzen da. Konpost hori ongarrri gisa erabiltzen da lorezaintzan, nekazaritzan eta arbolazaintzan.

## Atal organikoan sartzen ez diren materialak, eta nora bota behar diren

- Animalien gorotzak, errefusa.
- Kortxo sintetikoazko tapoiak, ontzi arinak.
- Plastikozko tapoiak, ontzi arinak.
- Konposta ezin diren pixoihalak, errefusa.
- Zigarro-mutxikinak, errefusa.
- Erratzarekin jasotako hautsa, errefusa.
- Trataturako egurraren errauts hotza, errefusa.



## Zer dira ontzi arinak?

- Aluminiozko edo burdinazko edari eta kontserba latak.
- Tetrabrick-ak.
- Edari eta elikagaien plastikozko botilak.
- Etxea garbitzeko produktuena plastikozko botila eta ontziak.
- Polistireno hedatuzko (porexpana) elikagai-erretiluak.
- Aluminiozko elikagai-erretiluak eta elikagaietarako aluminiozko gainerako materialak.
- Jogurten eta postreen plastikozko ontziak eta haien tapak.
- Beirazko ontzien metalezko tapak.
- Hortzetako pastaren tuboa eta kosmetikako plastikozko ontziak.
- Izoztutako elikagaien poltsak eta, oro har, plastikozko poltsa guztiak, baita plastikozko elikagai-filma ere.
- Paper plastifikatua.
- Botilen txapak.

Ontziek leku gutxiago hartzea nahi baduzu, gogoratu trinkotzeaz.



## Ontziak trinkotu itzazu

Ontziek leku gutxiago hartzea nahi baduzu, gogoratu zaitetz tetrabrick-ak, ur botilak, jogurt poteak eta edari latak trinkotzeaz.

## Nahi izanez gero, garbitu ontziak

Poteak eta gainerako ontziak garbitzea gomendatzen da, horrela hobeto birziklatuko baitira eta, gainera, ez dute usain txarrik botako. Ez da beharrezkoa plastikozko eta beirazko ontziei pegatinak kentzea.

## Nora eramaten dira ontzi arinak?

Biltzen diren ontziak Sanmarko Mankomunitateak Urnietan duen ontzien bereizte-plantara eramaten dira.



# ONTZI ARINAK

- Biltzen den guztia plastikozko poltsak, hiri altzariak, elikagaientzako erabili ezin daitezkeen ontziak, papera... egiteko erabiltzen da.

## Zer egiten da ontziekin?

Biltzen den guztia mekanikoki bereizten da eta, materialaren arabera, plastikozko poltsak, hiri altzariak (bankuak edo seinaleak, esaterako) elikagaientzako erabili ezin daitezkeen ontziak, papera... egiteko erabiltzen dira.

Burdinezko eta aluminiozko ontziak txapak, giltzak eta metalezko zein aluminiozko objektuak egiteko erabiltzen dira.

Altzariak, kutxak... egiteko ere erabiltzen dira ontziak.

## Ontzien atalean sartzen ez diren materialak, eta nora bota behar diren

- Erabilitako pintura latak, garbigunera.
- Erabilitako disolbatzaile latak eta botilak, garbigunera.
- Botiken ontziak, farmaziara.
- Plastikozko jostailuak, garbigunera.





# PAPERA ETA KARTOIA

## Zer sartzen da paperaren eta kartoia-aren atalean?

- Egunkariak, aldizkariak, publizitateko eskuorriak; zuri-beltzean zein koloretan inprimatuak.
- Gutun-azalak, orriak, paper jarraitua eta bulegoko paperezko gainerako materialak.
- Erabili eta botatzeko ostalaritzako paperezko erretiluak, platerak eta edalontziak.
- Zapiak eta mahai-zapi garbiak.
- Kartoizko kutxak.
- Kartoizko arrautza-ontziak, jogurt-ontzien paperezko bilgarriak eta komuneko paperaren kartoizko zilindroak.
- Kartoizko bilgarriak eta babesgarriak.

## Zer egiten da paperarekin eta kartoiarekin?

Bildutako guztia Vanpac enpresak Oiartzunen duen plantara eramaten da. Bertan, sailkatu ondoren, paper-fabriketara bidaltzen da prentsarako papera, gutun-azalak, orriak, kutxak... egiteko.



Bildutako guztia, sailkatu ondoren, prentsarako papera, gutun-azalak, orriak, kutxak... egiteko erabiltzen da.

## Paper eta kartoia-aren atalean sartzen ez diren materialak, eta nora bota behar diren

- Materia ez organikoz zikindutako papera, errefusa.
- Materia organikoz zikindutako paperezko zapiak, sukaldeko papera eta paperezko mahai zapiak, eta paperezko mukizapiak, materia organikoa.
- Plastifikatutako papera, ontzi arina.
- Klipak eta grapak, errefusa. Kantitate handian, garbigunera.



Plastikozko tapak eta tapoiak ontzi arinak dira.



## Zer sartzen da beiraren atalean?

- Kolore guztietako beirazko botilak.
- Kolore guztietako beirazko kontserba-poteak.
- Kosmetika produktuen beirazko ontziak.
- Botila hautsiak.

## Zer egiten da beirarekin?

Bildutako guztia beira bereizteko Ecovidrio enpresaren Laudio-ko plantara eramaten da. Bertan, tapoiak eta botila-lepoak bereizten dira, baita kalitatearen arabera beira-motak ere. Gero, Laudion bertan, Vidrala enpresako labeetan urtzen da material guztia berriro ontziak egin ahal izateko.

## Beiraren atalean sartzen ez diren materialak, eta nora bota behar diren

- Kortxo naturalezko tapoiak, materia organikoa.
- Kortxo sintetikoazko tapoiak, ontzi arinak.
- Beirazko ontzietako metalezko tapak, ontzi arinak.
- Plastikozko tapak eta tapoiak, ontzi arinak.




# ERREFUSA

## Zer da errefusa?

Errefusaren atalean sartzen dira birziklatzeko zirkuitu bereizirik ez duten materialak. Hala nola:

- Zeramikazko eta kristalezko katilu eta plater hautsiak.
- Erratzarekin bildutako hautsa, xurgagailuaren poltsak eta zigarro-mutxikinak.
- Ileak, azazkalak, makillajea kentzeko kotoia, hortzetako haria, depilatze argizaria, bizar-aitzurak, belarriak garbitzeko koitxoak, preserbatiboak, etab.
- Birziklatu eta berrerabili ezin daitezkeen pixoihalak, konpresak eta tanpoiak.
- Biberoiak, tetinak, txupeteak eta edoskitze-diskoak.
- Tratutako egurraren errauts hotzak.
- Idazmahaiko material gastatua.
- Animalien gorotzak eta katuentzako lurra.
- Sendaketa-hondarrak, esparatrapuak, gazak eta tiritak.
- Uraren iragazkietako ikatz aktiboa.
- Erabilitako kreditu-txartelak eta supiztekoak.
- Pertxak, kantitate txikian (etxeko erabileran). Kantitate handian, garbigunera.
- Bideo-zintak eta kaseteak.

Errefusaren atalean sartzen dira birziklatzeko zirkuitu bereizirik ez duten materialak. 

## Pixoihalak eta konpresak egunero-egunero jasotzen dira

Pixoihalak eta konpresak egunero jasotzen dira. Eskegilekuan uzten dira poltsa batean sartuta.

## Errefusaren atalean sartzen ez diren materialak, eta nora bota behar diren

- Disolbatzaile eta pintura hondarrak, garbigunera.
- Etxe tresna txikiak, garbigunera.
- Pilak eta metatzaileak, garbigunera edo pilak jasotzeko gunera.
- Tamaina handiko gauzak eta traste zaharrak, garbigunera.
- Bonbilla goriak, fluoreszenteak eta kontsumo baxuko bonbilla, garbigunera.
- Inausketa-adarrak, garbigunera.
- Olio mineralez, pinturaz edo disolbatzailez zikindutako trapuak, garbigunera.
- Plastikozko jostailuak, garbigunera.



## Garbigunea

Garbigunea Arraguako “Talaia” poligonoan egongo da.



Arraguako “Talaia” industriagunean egongo da. Eraiki bitartean, behin behineko garbigunea Iturriozko “Gaetxe” pabiloian jarriko da (bidegorriaren sarrerako pabiloia).

Atez ateko bilketa sistematik kanpo geratzen diren hondakinak jasotzen dira bertan, hala nola, obra-hondakinak, etxe-tresna elektrikoak, koltxoiak, inausketa-adarrak, pneumatikoak, etab. Tamaina handiko bestelako gauzak ere eraman ahalko dira bertara.

Herritarrek tamaina handiko gauza horiek edo inausketa-adarrak (kantitate handian) bertara eramaterik ez duten kasuetarako, udalak etxeko bilketa-zerbitzua eskainiko du.

Animalien larruak uzteko leku berezi bat izango da garbigunean. Merkatari eta ostalariek ere erabili ahal izango dute garbigunea, bilketa zerbitzu gehigarriak eskatzearen ordeztu.

Arropa, osagarriak eta trapuak uzteko edukiontzi bat ere izango da garbigunean.



# GAINERAKO MATERIALAK

## Garbigune mugikorra

Oloia, pilak, bateriak, aparatu informatiko txikiak..., garbigunean ez ezik, Sanmarko Mankomunitateko kamioian ere utzi ahal izango dira.

## Sanmarko Mankomunitateko kamioiaren ibilbidea eta ordutegiak

<b>Hileko lehen eta hirugarren asteartean</b>	
Karrika (plazan)	<b>09:00 – 09:20</b>
Altzibar (Klarene plazan)	<b>09:30 – 09:50</b>
Iturriotz (Beheko Soroan)	<b>10:00 – 10:20</b>
Ugaldetxo (futbol zelaiaren ondoan)	<b>10:30 – 10:50</b>
Ergoien (Pagoaldean)	<b>11:00 – 11:20</b>
Gurutze (frontoiaren ondoan)	<b>11:30 – 11:50</b>
Arragua (Goiko eskolan)	<b>12:00 – 12:20</b>
Arragua (frontoiaren ondoan)	<b>12:25 – 12:40</b>
Arragua (Lartzabal etxadia, anbulatorioaren ondoan)	<b>12:45 – 13:00</b>

<b>Hileko bigarren eta laugarren asteartean</b>	
Elizalde (Done Eztebe plazan)	<b>16:00-19:30</b>

<b>Larunbatetan</b>	
Carrefour merkatal zentrua (hileko bigarren larunbatetan)	<b>11:00 - 14:00</b>
	<b>15:00 - 19:00</b>
Alcampo merkatal zentrua (hileko hirugarren larunbatetan)	<b>11:00 - 14:00</b>
	<b>15:00 - 19:00</b>

## Bestelakoak

Etxeko animalia hilak albatariarenera eramango dira. Bestelako animalia hilak Foru Aldundiak horretarako duen zerbitzuaren bitartez bilduko dira.

Botikak eta botika-pote eta ontziak, farmaziara eraman behar dira.

# ATEZ ATEKO BILKETAREN FUNTZIONAMENDUA

## Kaleko edukiontziak

Edukiontziak kaletik desagertuko dira, beira biltzeko igluak izan ezik.

Bost hondakin atal biltzen dira, horietako lau atez ate.

## Hondakin atal bakoitza era batera ateratzen da

Edukiontziak kaletik desagertuko dira, beira biltzeko igluak izan ezik.



- **Materia organikoa:** kubo marroian, zintzilikatzeoan, eta poltsarik gabe.
- **Ontzi arinak:** plastikozko poltsetan, zintzilikatzeoan. Kometzioetako poltsak berrerabiltzea aholkatzen da.
- **Papera eta kartoia:** paperezko poltsetan edo soka batekin lotuta zintzilikatzeoan; kartoizko kutxetan ere atera daiteke.
- **Beira:** orain arte bezala, kaleko iglu berdeetan.
- **Errefusa:** ateratzen dugun zabor apurra, poltsetan sartuta, zintzilikatzeoan.

## Non uzten dira kuboak?

Kuboentzako zintzilikatzeoak etxeko atariaren kanpoaldean jarriko dira. Zintzilikatzeoak ez dira atari barruetan jarriko.

Herritar bakoitzak kubo bat izango du zintzilikatzeoan. Kubo marroia uzteko koska handiagoa da poltsak jartzekoa baino.



# ATEZ ATEKO BILKETAREN FUNTZIONAMENDUA

## Bilketa: herrigunea

**Hondakinak uzteko ordutegia:** 20:00 - 22:00\*

### Egutegia:

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
Ontzi arinak	Papera/ Kartola	Organikoa	Ontzi arinak	Organikoa	Errefusa	Organikoa
Pixoihalak eta konpresak						

## Landa-eremua: aportazio-guneak

Landa-eremuko bizilagunek aportazio-guneetan utziko dituzte beren hondakinak. Oiartzunen sei aportazio-puntu egongo dira. Gune horiek itxiak egongo dira, eta txartela/giltza dutenak bakarririk sartu ahal izango dira bertara.

### Kokapena:

- **Altzibar-Karrika:** “Ford Bianditz” kotxe-tailerraren alboan.
- **Arragua-Ugaldetxo:** “Talaia” industriagunean.
- **Elizalde:** “Mendiburu” albaitari-klinikaren errepidez bestaldeko aparkalekuan.
- **Ergoien:** “Pagoaldea” industriagunean.
- **Gurutze:** “Gurutze Berri” hotelaren errepidez bestaldeko aparkalekuan.
- **Iturriotz:** “Zirauki” kalean (goialdean).

## Larrialdi-gunea

Finkatutako egutegira edo ordutegira egokitzeko arazoak dituzten herritarrek hondakin mota guztiak gaika jasotzeko espresuki prestatutako gune honetara joateko aukera izango dute. puntu hori gune irekia izango da eta, bertara sartzeko, ez da beharrezkoa izango txartela/giltza izatea.

**Kokapena:** Arraguako “Talaia” poligonoa.

\* Ordutegia alda daiteke herriko jaietan eta antzeko egoeretan.

# ATEZ ATEKO BILKETAREN FUNTZIONAMENDUA

## Bilketa: merkatari eta ostalariak

Etxeko zerbitzua izango dute oinarri. Astearte, asteazken eta ostiral goizetan zerbitzu gehigarriak jasotzeko aukera izango dute.

### Hondakinak uzteko ordutegia:

Oinarrizko zerbitzua: 20:00 – 22:00

Zerbitzu gehigarria: goizez (ordutegi komertziala)

### Egutegia:

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
Oinarrizko zerbitzua	Ontzi arinak	Papera/ Kartoia	Organikoa	Ontzi arinak	Organikoa	Errefusa	Organikoa
	Pixoihalak eta konpresak						
Zerbitzu gehigarria		Organikoa	Errefusa		Papera/ Kartoia		

Etxeko bilketaren funtzionamendu bera izango dute: beira izan ezik, gainontzeko hondakin atal guztiak denda, taberna, jate-txe... atarian jasoko dira.

Udalak merkatari edo ostalari bakoitzaren beharren arabera edukiontzia banatuko ditu. Tamaina ezberdinetako edukiontzi horiek doan banatuko ditu udalak.

Materia organikoa poltsarik gabe jasoko da eta kartoiak, tolestuta, paperaren edukiontzia alboan uzteko aukera ere izango da.

Merkatari edo ostalari bakoitza arduratuko da bere edukiontzia txukun mantentzeaz.

## Kaleko zakarrontziak

Kaleko zakarrontziak mantendu egingo dira, baina atez ateko bilketara egokituta: atal ezberdinetan banatuko dira, hondakinak gaika bildu ahal izateko.





## Materia organikoa konpostatzea

Konpostatzea materia organikoa ongarri bihurtzea da. Prozesu honetan janari-hondarrak lur emankor bihurtzen dira. Prozesu motela da, baina %100 naturala.

Konpostatzea oreka ekologikoa berreskuratzeko modu bat ere bada. Ekosistema lehen kendu zaizkion elikagaiak berreskuratzeko gai denean, ziklo naturalak berrabiarazten dira. Konpostatzen dugunean lurrari bere elikagaiak itzultzen dizkiogu.

## Autokonpostatzea erraza da

Zabortegei nahiz errauskailuetan arazo gehien ematen duen hondakina txerrijana da, hau da, janari-hondarrak, atal organikoa. Zabortegetan hondakin organikoak usteldu egiten dira eta errauskailuetan ez dira ondo erretzen. Eta, aldiz, sailkatua datorrenean ongien birziklatzen den atala da. Hain erraza izanik etxean ere egin daiteke. Lur zati txiki bat eta mimo pitin bat besterik ez da behar.

Sail txiki bat duen edozein familia edo komunitatek eman dezake izena konpostatzeko. Izena emandakoei Oiartzungo Udalak, doan, konpostatzeko kutxa, ikastaroa eta udal aholkularitza teknikoa eskaintzen die.

Gainera, udalak materia organiko hori jasotzera joan behar ez duenez eta tratamendu gasturik ere ez izanik, autokonpostatzen duten familiek hondakinen tasan %20ko beherapena izango dute.

Konpostatzen duten familiek hondakinen tasan %20ko hobaria izango dute.



## OHIKO GALDERAK

### Kuboak doan izango dira?

Bai, guztiz doan. Kubo bakoitza identifikatuta egongo da, herritar bakoitzak berea zein den jakin dezan.

### 5 ataletarako 5 kubo banatuko dira?

Ez. Kubo marroiak bakarrik banatuko dira, eta materia organikoa biltzeko soilik izango dira. Udalak familia bakoitzari bi kubo marroi emango dizkio, doan. Papera paperezko poltsetan, kartoizko kaxa batean edo fardela balitz bezala soka batekin lotuta aterako da. Ontziak plastikozko poltsan jaitsiko dira, baita errefusa ere.

### Kubo/poltsaren bila etxeko ateraino etorriko al dira?

Ez. Poltsak eta kubo marroia eskegilekuan utzi beharko dira. Herritar bakoitzak berari dagokion lekuan zintzilikatu beharko du kuboak. Zintzilikatzekoak ez dira atari barruetan jarriko.

### Eta zer gertatzen da beirarekin?

Beirarentzako iglu berdeak ez dira kaleetatik kenduko. Botilak eta beirazko ontziak, orain arte bezala, iglu berdeetara botako dira. Beira biltzeko iglu gehiago jarriko dira.

### Eta hondakinak ordutegi horretan ateratzerik ez dutenek?

Horretarako dago larrialdi-gunea, bilketa ordutegira eta egutegira egokitze arazoak dituzten pertsonentzat. Gune horretara asteko edozein egunetan eta eguneko edozein ordutan eraman ahal izango dira atal desberdinetako hondakinak.

### Zer gertatzen da egun batean tokatzen ez den atala ateratzen bada?

Ez da poltsa jasoko, zintzilikagailuan geratuko da. Informazio bulegoko teknikariak arduratuko dira herritarrei sistemak nola funtzionatzen duen azaltzeaz.

## OHIKO GALDERAK

### Nola jokatu du udalak hutsegite baten aurrean?

Bilketako langileek, egun bakoitzean, dagokion atala bilduko dute. Materia organikoa biltzea tokatzen den egun batean paper-poltsa bat egonez gero, ez dute papera bilduko eta akatsaren berri emango dute.

### Kuboa nahi dudanean ateratzerik izango dut?

Ez. Adostutako egun eta ordutegian atera behar da. Kubo marroia materia organikoarekin soilik erabiliko da.

### Eta norbaitek kuboa ordutegiz kanpo ateratzen badu?

Norbaitek hondakinak bilketa-kamioia pasa ostean ateratzen baditu, ez dira jasoko. Horrelako akatsen aurrean, informazio bulegoko teknikariak arduratuko dira herritarrei ordutegia zein den eta sistemak nola funtzionatzen duen azaltzeaz.

### Eta norbaitek ordutegia edo egutegia ez betetzen jarraitzen badu?

Ordenantzen arabera, ordutegia eta egutegia behin eta berriz haustea zigorgarria da.

### Organikoak usain txarra izango du?

Kubo marroiaren behealdean sukaldeko paper xurgatzaile bat jartzen badugu azpialdean pilatzen den eta usain txarra sortzen duen hezetasuna saihestuko dugu. Bestalde, arrain-buruak eta antzeko hondakinak paper xurgatzailean bil daitezke usaina gutxitzeko.

Etxean den artean kuboa beti zabalik izatea gomendatzen da, aireztatzeko eta hondakinak ez usteltzeko.

## OHIKO GALDERAK

### Norbaitek gure poltsak begiratu edo arakatuko ditu?

Ez. Biltzaileak poltsa eustea nahikoa du bereizketa egoki egin den ala ez ohartzeko.

### Konposta egiteak usain txarra sortzen du?

Ez du usain txarrik sortu behar. Usain txarra tratamendu eskasaren adierazle da. Usain txarra badu, informazio bulegora jotzea aholkatzen da. Teknikari batek behar beste azalpen emango dizu edo bestela zure etxera joango da arazoa konpontzeko.

### Konposta baratzean erabil daiteke?

Baratzerako, lore-ontzietarako, zuhaitzetarako... erabiltzen da, kalitatezko ongarri gisa. Landareek eskertzen dute eta gure osasunak ere eskertuko du. Kalitatea materia organikoaren garbitasunaren eta tratamendu egokiaren araberakoa da. Ikastaroa erraza eta oso praktikoa da. Udalak konposta kaxak doan banatzen ditu eta aholkularitza tekniko ere eskaintzen du.

### Autokonpostatzen badugu hondakinen tasan gutxiago ordainduko dugu?

Bai. Autokonposta egiten duten guztiak zerrenda batean egongo dira eta dagokien hobaria aplikatuko zaie, %20koa. Izan ere, beren materia organikoaz arduratzen diren familien janari hondarrak biltzen eta tratatzen ez du gasturik izango udalak.

Zalantzak argitzeko:

**Atez ateko informazio bulegoa:**

Done Eztebe plaza 11. Sarastiene  
09:00 – 13:30 / 15:30 – 19:00 (astelehenetik ostirala)

**Doako telefonoa:** 900 49 11 11

**Emaila:**

atezate@oiartzun.org

**Webgunea:**

www.oiartzunatezate.org